



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2016ko MAIATZAREN 31an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2016ko maiatzaren 31an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Onintza Gorostidi Murua
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Uxue Etxebeste Eizagirre
Xabier Mugika Letamendia

Bere ezin etorria azaltzen du: Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. **Aurreko bilkuretako akten onespena.**
-2016ko apirilaren 26an egindako ohiko bilkuraren akta.
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **Alkizako Apaiztegi Goikoa beserriko teilatuan konpontze lanak egiteko obra baimena eskaera, J.Z.U.**
5. **2016 urterako udal tasen hobari eskaeraren azterketa, hala bada.**
6. **Beste batzuk.**
7. **Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2016ko apirilaren 26ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

10/2016 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 20koa, Kreditu aldaketari hasierako onespena ematea, ebazten duena.

11/2016 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 3koa, K.M.U. jaunak eginiko eskaera onestea, ebazten duena.

12/2016 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 11koa, J.M.A. jaunari irekitako espedientea bukatutzat jotzea, ebazten duena.

13/2016 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 18koa, J.M.T. jaunari jarritako fidantza bueltatzeko onespena ematea, ebazten duena.

14/2016 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 19koa, Anoetako heri ikastolari, 200 aulki eta lau mahai uztea, ebazten duena.

15/2016 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 20koa, J.R.H. jaunak eginiko eskaera onestea, ebazten duena.

16/2016 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 26koa, 2017 urteko Alkiza Udalerriko jaiegun bezala irailaren 8a onartzea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

MOVISTAR FIJO	80,08
MOVISTAR FIJO	58,40
MOVISTAR FIJO	69,91
AUDAX	131,88
AUDAX	319,72
AUDAX	89,75
AUDAX	225,18
AUDAX	30,72
AUDAX	42,87



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

AUDAX	58,11
SOLRED	51,33
ARGITU	156,50
EUSKALTEL	67,70
AUDAX	179,91
AUDAX	435,86
EDURNE BENGOA	181,50
CALCOSA	54,45
PREVENALIA	141,95
PREVENALIA	567,82
REPSOL	409,52
REPSOL	8,37
REPSOL	325,72
QUISER	479,10
CORREOS	18,93
REPSOL	211,06
REPSOL	69,84
LYRECO	384,26
TINDU MARGOAK	99,80
BABESA SUZAI	57,74
CALPARSORO INDUSTRIAL	8,57
CARPINTERIA KIMU	1.696,20
EGIA	89,78
KEPA MIRANDA	500,00
TOLOMENDI	152,50
ITURRALDE INDUSTRIAGAIK S.L.	87,25
ANTONIO ELOSEGUI	75,38
FONTANERIA ANTZIETA	426,82
IZADI LABORATEGIA	152,94
ULAHI ORONA	526,35
IZFE	20,46
LASURTEGUI ATXEKI	148,83
BULEGOAK	199,09
BULEGOAK	122,55
AUDAX	23,06
AUDAX	104,08
AUDAX	44,65
AUDAX	226,73



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

AUDAX	141,76
AUDAX	137,90
AUDAX	13,62
AUDAX	75,34
AUDAX	67,68
AUDAX	6,52
IBERDROLA	33,54
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	290,71
MOVISTAR	79,78
MOVISTAR	58,40
MOVISTAR	68,56
SOLRED	50,00
EUSKALTEL	74,35
ARGITU	156,50
KEPA MIRANDA	348,00
KEPA MIRANDA	125,00
GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALA	118,34
JON UMEREZ	597,33
BERRI LANTEGIA	31,30
BIXENTE OTEGI	2.178,00
AUDAX	46,08
AUDAX	165,50
AUDAX	404,15
AUDAX	104,47
AUDAX	33,89
AUDAX	23,47
AUDAX	127,42
AUDAX	69,20
AUDAX	47,54
AUDAX	6,13
AUDAX	129,37
AUDAX	66,53
AUDAX	133,51
IBERDROLA	43,17
GAS NATURAL	91,97

ERABAKITZEN DUTE



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENA.- Guztira **15.758,25** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

ALKIZAKO APAIZTEGI GOIKOA BASERRIKO TEILATUAN KONPONTZE LANAK EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, J.Z.U.

Ikusirik J.Z.U. jaunak Apaiztegi Goikoa baserriko teilatuan konpontze lanak egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik Udal Aholkulari Teknikoak, 2016ko maiatzaren 5ean eginiko txostenean dioena:

ALKIZAKO "APAIZTEGI GOIKOA" BASERRIKO TEILATUAN KONPONTZE LANAK EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

*J.Z.U jaunak, "Apaiztegi Goikoa" baserriko teilatuan konpontze lanak egiteko baimena eskatzen du, lanen aurrekontua aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

Aurkeztutako idatziaren arabera, teilatuaren konponketa, gaur eguneko teila eta oholak ordezkatzera izango da.

Lan hauen aurrekontua, 20.373,12 €-koa da (BEZ-a gabe).

2/2006 Lurzoru legearen 199 artikuluaen arabera," Lursail, etxe, eraikin eta instalazioen jabeek nahitaez dute ondasun horiek segurtasun, osasun, begirune eta apaintasun publikoko egoera onean mantentzeko eginbeharra. Horretarako, behar diren kontserbatze- eta birgaitze-lanak egingo dituzte, bertako bizigaitasuna eta benetako erabilera bermatzeko."

Alkizako Hiri antolaketako 6º artikulua, egun dauden mota guztietako eraikinen kanpoaldeko itxuraren aldaketek hirigintza lizentzia behar dutela esaten du.

"Apaiztegi" baserria Alkizako lur ez hiritargarrian kokaturik dago, bereziki Erabilerarik Esleitu Gabeko lurtean. Alkizako arau subsidiarioen arabera, eraikinak udal katalogazioa du, beraz, ez da beharrezkoa izango Foru Aldundiko alde aurreko txostena.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Alkizako lur ez hiritargariaren araudiaren 2 artikulua arabera, teilatuen akabera, zeramikazko teilazkoa edo honen antzekoa izan beharko da.

Hau honela izanik eta eskarian azaltzen diren lanak Alkizako araudiarekin bat datoenez, legeztagarriak direla informatzen dut.

**Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

**Obra hondakinak, baimendutako zabortegi batera eraman beharko dira eta lanak amaitzean, eraispin-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean*

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENENGOA.- J.Z.U. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Apaiztegi Goikoa baserriko teilatuan konpontze lanak egiteko obra baimena ematea, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

2016 URTERAKO UDAL TASEN HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik 2016 urterako ura eta zabor tasen hobari eskaerak egiteko epea zabaldu zela otsailaren 1etik 29arte (biak barne).

Aipaturiko epean lau eskaera aurkeztu ziren.

Ikusirik Gizarte langileak eginiko txostenetan dioena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENGOA.- J.M.-eri ur eta zabor tasetan % 75eko hobaria onestea.

BIGARRENA.- C.C. -eri ur eta zabor tasetan % 75eko hobaria onestea.

LAUGARRENA.- A.P.P. -eri ur eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

BOSTGARRENA.- M.J.O.-eri ur eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

SEIGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunei jakinaraztea.

SEIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

6.1.X.U.A. JAUNAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik, X.U.A. jaunak eginiko eskaera, non azaltzen duen gaur egun Garaikoetxea baserriari atxikita dagoen upategiaren aktibitatea X.U.A. izenean dagoela. Elkarte berri bat sortu duela eta aktibitatearen titularitatea Garaikoetxea Txakolindegia S.L. (I.F.K.B-75142000 duena) elkartaren izenera aldatzeko eskaera egiten du.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Garaikoetxea baserriari atxikita dagoen upategiaren aktibitatea, X.U.A. izenean zegoena, hemendik aurrera Garaikoetxea Txakolindegia S.L. elkartearen izena izatea onestea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

6.2. B.R.R. ANDREAK EZARRITAKO KEXA AZTERTZEA, HALA BADA

Ikusirik, B.R.R. andreak kexa bat aurkeztu duela, plazaren zati bat eskola orduan itxi delako.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: B.R.R. andreaki ondorengo erantzuna ematea:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

“Gracias por transmitirnos tu opinión y queja que hemos considerado con atención.

No obstante, no podemos atender tu petición porque, por un lado, choca con las demandas de otras personas, que este Ayuntamiento estima fundadas y son numerosas. A este respecto, no creemos que puedan hacerse con base juicios de intención acerca de quiénes votaron qué, atendiendo a qué motivación o evaluando su grado de consecuencia.

Por otro lado, aún viniendo de barrios alejados del casco, no parece que sea necesario “entrar y aparcar” en la plaza para acompañar o traer a las niñas y los niños a la escuela.

Como bien sabes, por varios años, el Ayuntamiento (tanto esta corporación como otras anteriores) se resistió a establecer medidas de prohibición e insistió en solicitar la colaboración de los principales usuarios (diversos grupos integrantes de la comunidad escolar) promoviendo para ello la auto-regulación y la responsabilidad en aras de evitar situaciones de colapso y, sobre todo, de riesgo para las niñas y los niños.

A la vista de que esos principios básicos no se aplicaban y ante la iniciativa de algunas de las personas más directamente afectadas, el Ayuntamiento optó por tomar medidas para garantizar, por lo menos, la seguridad y tranquilidad de las niñas y los niños durante el horario escolar. Y en lo que respecta al espacio inmediato de la escuela y su acceso a la parte central de la plaza, al parque infantil y al frontón ese objetivo se ha logrado satisfactoriamente.

Con respecto al colapso de los accesos, insistimos en seguir apelando a la auto-regulación y consideración de quienes acceden a la plaza o sus alrededores aunque no descartamos que, en algún momento de seguir así, podamos vernos obligados a establecer medidas adicionales más drásticas (que afecten a todo el mundo), por ejemplo, impidiendo por completo el acceso a la plaza a todo vehículo no autorizado sin excepción.

Por último, en lo que se refiere a las personas que sin ser residentes hacen caso omiso de la limitación de acceso, hemos de informarte que ya con anterioridad se les había conminado a cumplirla al haber efectivamente detectado que no lo hacían y a raíz de tu queja les hemos reiterado nuevamente la obligación de respetar la regulación so pena de tener que afrontar las consecuencias de su conducta.

Saludos cordiales,”



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Erabaki honen interesdunari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

7.1. USURBILGO UDALEKO ALKATEAK IGORRITAKO IDATZIARI ATXIKIMENDUA

Ondoren Usurbilgo Udaleko Alkateak igorri duen idatzia aurkezten da non ondorengo dioen:

“Usurbil, 2016ko maiatzaren 2an

Alkate estimatua:

Ondo dakizu herri baten egunerokoan zenbat gorabehera sortzen diren. Alkatetzak, poz eta esker oneko uneekin batera, buruhaustek ere ekartzen dizkigu. Horregatik, karguaren konplizitateak elkar ulertzea erraztuko duelakoan, zuregana zuzentzen naiz nire kezka azaltzera.

Kontu jakina da Gipuzkoako Zubietan erraustegia egiteko asmoari berriz heldu diola Gipuzkoako Foru Aldundiak. Asmoa aspalditik dator, eta bide katramilatsu eta luzean zalaparta eta tirabira ugari sortu da. Erraustegiaren proiektua Zubietara iristerako, beste hainbat kokaleku ere proposatu ziren: Urnieta, Txingudi, Zestoa, Landarbaso, Aritzeta... Guztietan bizilagunen kexak eta protestak eragin ditu, salbuespenik gabe.

Zubieta, argitu dezagun, udalerrri izaerarik ez duen herrixka da. Administratiboki bitan banatuta dago: parte bat Donostiaren menpekoa da, eta bestea Usurbilen menpekoa. Geografikoki Ori ibaiaren ertzean dago, eta Lasarte-Oriako eta Usurbilgo herriguneak ditu gertuen. Donostiako erdigunea hamar bat kilometroko distantziara dago.

Erraustegiaren proiektuak izan dituen gorabeheretan ez naiz sartuko, baina uste dut problema etiko eta demokratiko baten aurrean gaudela. Inork ez du aldamenean nahi, eta hala ere derrigorrean egin beharrekotzat saltzen zaigu.

Dilema etiko horrek dimentsio latza hartzen du erraustegiak eragiten dituen osasun-kalteak aintzat hartuz gero. Ikerketa asko daude argitaratuta, aldizkari serio, fidagarri eta modernoetan, erraustegiaren osasun-kalteak nabarmentzeko eta ebidentziaren mailara eramateko. Gipuzkoako mediku-talde batek txosten bat argitaratu du horren berri emateko, eta jendaurrean ere hamaika informazio-saio egiten ari dira.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Izango da ikerketa horiei sinesgarritasuna kentzen dienik (gainera, ez dugu zertan denok iritzi bera eduki), baina, osasunaz ari garela, arrisku hutsak aski behar luke arduraren eta prebentzioaren printzipioa aplikatzeko beste ezeren aurretik.

Osasunak kezkatzen nau gehienbat, gaurko eta biharko herritarrek izan ditzaketen minbizi, malformazio eta patologien areagotzeak.

Ez da kezka bakarra, ordea. Beste bi alderdik ere arduratzen naute: batetik, proiektuaren kostu ekonomiko handiak eta finantziazio-bide pribatizatzaileak; bestetik, Europak etorkizunerako markatzen dituen direktibei entzungor eginez, Gipuzkoako hainbat herritan abiatutako hondakin-tratamendurako bide jasangarriari muzin egiteak. Alderdi humano, sozial, ekologiko, eta ekonomikotik begiratuta, atzerapauso izugarria da erraustegia eraikitzea.

Gipuzkoako gizartea egunez egun erakusten ari da ez dela behar halako azpiegiturarik. Hainbat herritako birziklatze-tasak Gipuzkoa osora estrapolatuz gero, kitto, bukatuta legoke eztabaida. Garbi dago, beraz, zein den bidea.

Horregatik, zentzu betea du herrian entzuten den esaldi honek:

“Burua duenak ez du ondoan nahi eta bihotza duenak ez du inon nahi.”

Azken batean, hondakinak kudeatzeko dugun moduak eta, zer esanik ez, dilema etiko baten aurrean hartzen dugun jokabideak, garbi islatzen dute zer garen, nolakoa den gure izaera kolektiboa.

Horiek horrela, hauxe da egin nahi dizudan eskaera:

Alderdien arteko eztabaida eta logiken gaintik, karguak ematen digun konplizitateaz, Zubietako erraustegiaren gaia zure herriko udalbatzarrera eramatea. Nahi nuke itxikeria politikorik gabe eta herritarren ongizatea oinarritzat hartuz, gai honi buruzko eztabaida parametro etiko eta demokratikoetan eman dadin. Eta, ongi baderitzozu, zure herriko udalbatzarrak hartzen duen erabakiaren berri ematea ere eskertuko nizuke.

Besterik gabe, jaso ezazu nire agurra eta esker ona.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Usurbilgo Udaleko Alkateak igorritako idatziari atxikimendua ematea onesten da.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak
bilkura 21.30 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek
izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako
adierazgarria dela uste duena.*